

Kidegoaren kodea: 590	Espezialitatea: Hezkuntza Orientazioa	Hizkuntza: Euskara	Froga egitearen data: 2021/06/20
---------------------------------	---	------------------------------	--

1 PROBA - A ZATIA

A AZTERKETA

Testuingurua:

D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak dituen ikastetxe bateko orientatzailea zara. Lerro bakarreko ikastetxea da. Ikasturte hasiera da.

Egoerak:

A) Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen artean, LHko 6. mailan adimen desgaitasun arina duen ikaslea dago, Nahia.

Nahiak eskolatze osoa ikastetxe honetan eman du. Lehen Hezkuntzako etapan ikasturte bat errepikatu du. Momentu honetan Egokitzapen Kurrikular Esanguratsua du, LHko 2.-3. mailen artean kokatzen dena. Taldeko kideekiko harremanari dagokionez, azken bi ikasturteetan gorabeherak izan ditu.

- Adierazi zer nolako esku-hartzea planteatuko zenukeen ikasturte honetarako.
- Hurrengo ikasturteari begira, zer nolako proposamenak zehaztuko zenituzke eta nola bideratuko zenuke bere kasua?

B) Urriaren bukaeran zuzendaritzak Colombiatik etorri den 9 urteko mutil bat matrikulatu dela adierazi dizu, Kevin.

Kevin bi egun barru hasiko da eskolan. Familiak ez dio ikastetxeari aurreko eskolatzearen inguruko txostenik edo dokumentaziorik igorri. Familiak zuzendaritzarekin izan duen elkarriketan langabezian daudela adierazi du.

- Adierazi zer nolako aholkularitza eta esku-hartze neurriak planteatuko zenituzkeen Kevinen kasurako.